



## **BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA**

### **Akta**

2016ko urriaren 19an Eusko Jaurlaritzako Lakuako egoitzan 12:00etan..

### **Bertaratuak**

- Ángel Toña Guenaga –Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko sailburua, lehendakaria
- José Alberto Vicente – Kiribil Sarea. Lehendakari ordea
- Pilar Redondo – SECOT Álava
- Ricardo Sánchez - Futubide
- Iñaki Ramírez de Olano – CEAR Euskadi
- Ana Ruiz – AECC Gipuzkoa
- Mayte Díaz de Lezana – AGLE
- Arantzazu Lersundi – DYA de Gipuzkoa
- Maite Fernández – FEVAS
- Javier Carnicero – Portugaleteko Aisialdi Sarea
- Laura Bañales – Sartu Álava
- Ainara Pérez – Sartu Álava
- Miren Gurrutxaga – Gizalde
- José Javier Miguel- Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Komunitate garapenerako zuzendaria
- Rafael Hernández – Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria
- Idoia Manzarraga - Bizkaiko Foru Aldundiko teknikaria
- Iosu Madariaga – Ingurumeneko sailburuordea
- José Antonio Fernández – Segurtasun Saileko teknikaria
- Paul Ortega – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako teknikaria
- Jon Zuazagoitia – Osasun Saileko teknikaria
- Josu Gerediaga – Gazteria eta Kirolak Saileko teknikaria
- Eva García – Familia Politika eta Komunitate garapenerako zuzendaritzako teknikaria.
- Ramón Andrinua – Lana, Enplegua eta Gizarte Politiketako Bizkaiko ordezkari teknika. Idazkaria

## Gai-zerrenda:

- 1.- Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta hala badagokio, onartzea.
- 2.- Urriaren 6an erakundeen boluntariotzako arduradunekin egindako lan-bilerako ondorioen aurkezpena.
- 3.- Eusko Jaurlaritzako sail kontseilukideek boluntariotzaren alorrean egindako jarduerak aurkeztea.
- 4.- Kontseiluaren aurretiko lan-bilerako ondorioen aurkezpena.
- 5.- Legealdiaren errepasso laburra, boluntariotzari dagokionez.
- 6.- Galderak eta eskaerak.

### **1.- Aurreko bilkurako onartzea**

2016ko ekainaren 15ean ospatutako bilkurako akta onartzen da.

### **2.- Urriaren 6an erakundeen boluntariotzako arduradunekin egindako lan-bilerako ondorioen aurkezpena**

Ángel Toña sailburuak azaldu du hilaren 6an lan-bilera bat egin zela *Boluntariotzak Euskadin duen egoerari buruzko 2015eko txostenean* jasota dauden erronken inguruan. Lantalde Iraunkorrari egokia eta komenigarria iruditu zitzaion erakundeetako boluntariotzako arduradunekin lan-bilera bat egitea, egunez egun boluntariotza kudeatzen dutenak direnez, haiekin egiaztatzeko txostenean deskribatzen diren erronkak bat datozela errealitateari buruz duten ikuspegiarekin.

Parte hartzeko gonbit egin zitzairen Boluntariotzako Erakundeen Erroldan erroldatutako erakundeei eta 2015-2016 urteetan GIZ eta ELK laguntzak eskatu zituzten erakundeei. Lantalde Iraunkorrek eta 30 elkarte inguruk hartu zuten parte. Bideratzaile lana berrikuntza sozialean aditua den Asier Gallastegik egin zuen. Topaketaren formatua dinamikoa eta parte-hartzailea izan zen, taldekako lana egiteko.

Jarraian, José Alberto Vicentek, Kontseiluko presidenteordeak, bileraren garapena laburbilduko du. Adierazi du txosteneko erronkak berrikusi zirela eta denbora bat izan zutela erronka horiek taldeka lantzeko, partaideen esperientziekin bat zetozen ala ez egiaztatzeko.

Partaideen iritziz, txostenean jasotako erronkak bat datoz errealitatearekin, baina adierazi zuten oso zaila zela guztiak batera lantzea eta lehentasunak ezartzeko eskatu zuten. Taldeka lan egin zen erronkak lehentasunaren arabera ordenatzeko, eta lan horretatik ondorioztatu zen erronkak arlo desberdinetan multzokatzea komeni zela, eskumena duen eragilearen arabera. Adostu zen hiru arlo/esparru handi bereizten direla eta haietan multzoka daitezkeela erronkak: elkarteen barne erronkak, elkarte guztiek sektore gisa dituzten erronkak, eta kanpo eragileek -administrazioek, gizarteak, enpresek...- boluntariotzari eta hura kudeatzen duten elkarteei laguntzeko bere gain hartu behar dituzten erronkak.

Jarraian, gometsen bidez erronken lehentasuna zehazteko eskatu zitzaien partaideei. Horren ondoren, taldeka egin zen lan eta honako erronka hauek azaldu ziren:

#### Barnekoak:

- Boluntarioei tokia egitea, benetan elkarteko parte izan daitezen; protagonismoa eta ardurak ematea, baita elkarteko zuzendaritzan parte hartzeko aukera ere.
- Ahaleginak egitea pertsonak mobilizatu, sentsibilizatu eta inplikatzeko.
- Pertsona, profil eta erritmo desberdinetara egokitzen jakitea.
- Boluntarioei leku gehiago emateak izan ditzakeen ondorioei buruzko mesfidantzak gainditzea.
- Erakundeetan dauden motibazio desberdinak ezagutzea, ulertzea eta onartzea.
- Erabateko inplikazioa sustatzea, zeregin bat soilik egin beharrean.
- Egiturak eta erakundea irekitzea, eta alde batera uztea inertziak eta aldaketekiko erresistentzia.

#### Sektorialak:

- Boluntariotzaren osagai etikoa berreskuratzea: doakotasuna, altruismoa, motibazioa, bizimodua.
- Ekintza boluntarioaren izaera eraldatzailea berreskuratzea.
- Sarean lan egiteko modua hobetzea.
- Diskurtsoa bateratzea, boluntariotza ikusgai egiteko modu gisa.
- Boluntariotzak sektore gisa duen ikusgaitasuna hobetzeko beharrezkoa da inplikaturik egotea eta proaktiboak izatea, eta horrek beldurra eragiten du, guztiona lortu nahian norberarena galtzeko arriskua baitago.
- Emakumea ahaldundua ardura publikoko karguak bere gain har ditzan, erakundeen barruan nahiz sektorean.

#### Kanpokoak:

- Boluntariotzak gizartean eta Administrazio Publikoan egiten duen lanaren aintzatespen publikoa sustatzea.
- Enpresen mundura hurbiltzea, lankidetzan jarduteko moduak bilatzeko.
- Iraultza digitalari beldurra galtzea eta ematen dituen aukerez baliatzea, munduan zehar ere ikusgai egin gaitzen.
- Hezkuntza-komunitatearekin lan egitea, ikasleen artean boluntariotzaren balioak sustatzeko.

Amaitzeko, ateratako ondorioak bateratu ziren. Partaideek lan-bileran parte hartzeko gonbidapena eskertu zuten eta datozen urteetako boluntariotzaren estrategia lantzen laguntzeko prest zeudela adierazi zuten. Sailburuak adierazi du Lantalde Iraunkorrek bilera horren inguruan egindako balorazioa ona dela, erakundeetako ordezkari asko bertaratu zirelako eta parte-hartzea oso aktiboa izan zelako.

Amaitzeko, nabarmendu du garrantzitsuak izango direla, halaber, tartean dauden administrazioek erronkak zehazteko helburuarekin egin ditzaketen ekarpenak, datozen lau urteetako estrategia prestatu ahal izateko.

### **3.- Kontseiluko kide diren Eusko Jaurlaritzako sailek boluntariotzaren alorrean egindako jardueren aurkezpena**

Gai-zerrendako puntu honi heltzeko, Angel Toñak aipatu du boluntariotzaren inguruan egiten ari diren ekintzak azaltzeko eskatu zaiela Kontseiluan ordezkaturik dauden Eusko Jaurlaritzako sailei. Aurkezpena egitera gonbidatu ditu sailtako ordezkariak.

Iosu Madariaga Ingurumeneko sailburuordeak ingurumen-boluntariotzara bideratutako helburuak, ekimenak eta proiektuak azaldu ditu:

- Ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntza-programa. Ingurumen-politikan herritarrek eta eragile sozialek aktiboki lankidetzan jardutea ezinbesteko baldintza bat da jasagarritasunerantz aurrerapausoak emateko. Programaren jarduera-eremuak ingurune naturala, naturagune babestuek, hiri-ingurumena, kontserbazioa eta ikerketa dira. 2015eko deialdian 14 proiektu aurkeztu ziren, eta 11 onartu. Adibidez, anfibioentzako putzuak sortzea eta mantentzea, euskal kostaldean hondakinak arrantzatzea eta ingurumena biziberritzea.
- «Aztertu» programa, bi proiektuekin: Batetik, Ibaialde, 1996an Euskal Autonomia Erkidegoko ibai-ekosistemak hedatzeko helburuarekin sortutako ingurumen-hezkuntza proiektua; bestetik, Azterkosta, gure kostaldea ezagutarazteko, gainera dituen mehatxuak identifikatzeko eta herritarrek bertan dauden naturaguneak babesteko beharraz kontzientziatzeko helburua duena.

Rafael Hernándezek esan du gutxi iruditzen zaizkiola dirulaguntzen deialdian aurkeztutako proiektuak.

Iosu Madariagak erantzun dio izugarri gustatuko litzaiokeela proiektu gehiago egotea eta xede horretarako bideratutako aurrekontua agortzea. Gaineratzen du ingurumena zaintzeko kultura oso berria dela gure herrialdean. Azken hamarkadetan aurrekoetatik oinordetzan jasotakoa zuzendu besterik ez da egin, eta prebentzio- eta heziketa-politikak 2000. urtetik aurrera hasi dira lantzen.

Jon Zuazagoitia Osasun Saileko teknikariak bere Sailean boluntariotzaren arloan proposatu diren estrategiak eta ekintzak azaldu ditu.

- Osasun Eskola. Ekintza honen asmoa gaixoak inplikatzeko da, patologia berak dituzten beste pertsonen hezitzaileak izan daitezela. 2015ean 74 ikastaro egin dira, 750 pazienterekin.
- Odol-emaileak. 53.000 emaile aktibo boluntario daude eta 2.000 kolaboratzaile, herri bakoitzeko ordezkariak barne.

- Gaixoen eta senideen elkarteak. 2015ean 68 elkarteren 119 proiektu lagundu dira diruz.
- Euskal osasun-sisteman herritarren partaidetza sustatzea. Helburu nagusia osasun-sisteman pazienteak aintzat hartzea da, haren iritzia jakitea. Bi dokumentu egin dira: sustatzeko plana eta sustatzeko gida.
- Hirugarren sektoreko erakundeen batzorde estrategikoa. Herritarren lankidetzak eta partaidetza maila instituzionalean antolatzekeko tresna bat da.

Ricardo Sánchezek galdetzen du ea badagoen odol-emaileen erregistrorik eta nolakoa den emaileek Sailaren partetik jasotzen duten arreta. Aipatu du ohiko emailea den pertsona bat ezagutzen duela, eta 65 urte bete ondoren odola ematera joan zela eta adinagatik ez ziotela utzi. Haren iritziz, baldintza horiek aurrez jakinarazi beharko lirateke.

Jon Zuazagoitiak erantzuten du badagoela odol-emaileen erregistro bat, baina, jakina, ez dela publikoa. Gaineratzen du emate guztietan oso kontrol zorrotzak egiten direla eta beti jakiten dela nor diren emailea eta hartzailea. Gogoan hartzen du 65 urtetik gorako emaileen inguruan aipatutakoa, ez baitu baldintza hori ezagutzen.

Josu Gerediaga Gazteria eta Kiroleko Zuzendaritzako teknikariak azaldu ditu bere Zuzendaritzak garatu dituen eta gazteriaren arloan boluntariotzarekin lotura handiena duten programak eta zerbitzuak.

- Euskadiko Gazteak Lankidetzan urteko programa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin lankidetzan. Helburu nagusia lankidetzak-ekintzen inguruan sentsibilizatzea eta gazteen artean elkartasunaren kultura sustatzea da. Programa horren bidez, Euskadiko 100 gaztek Afrika, Asia eta Amerikako proiektuetan kolaboratzen dute, 3 hilabetez.
- Auzolandegiak urteko programa. Askotan, gazteek lan boluntarioarekin lehenengo kontaktua izateko balio du. 400 gaztek parte hartzeko aukera ematen du.
- Gehienbat pertsona boluntarioek osatutako gazteen elkartei zuzendutako dirulaguntzak.
- Europako beste herrialde eta eskualdeekin gazteen mugikortasunerako eta trakerako programak garatzeko dirulaguntzak.
- Espainiako Agentzia Nazionalean parte hartzea Europako Batzordearen Erasmus+: Gazteak Ekinean programarako.
- Gazteen Euskal Behatokia. Gazte boluntarioen inguruko informazio garrantzitsua ematea.
- EAEko gazte-informazioko bulegoen sarea koordinatzea. Bulego horiek gazteen intereseko informazioa eskaintzen dute, boluntariotzari edo boluntariotzako agentziei buruzkoa barne.
- Gainera, zeharka, beste bide batzuetatik ere sustatzen da boluntariotza; esaterako, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko jarduerak finantzatzen lagunduz.

José Antonio Fernández Larrialdiei Aurregiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzako teknikariak azaldu ditu bere zuzendaritzak larrialdietako eta babes zibileko boluntarioekin egiten dituen ekintzak.

- Hitzarmenak honako hauekin: Gurutze Gorria, Euskal DYA, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, Euskal Mendizale Federazioko Erreskate Taldea, Espeleolaguntza Elkargoaren Erreskate Taldea eta VOST Euskadi-Euskadiko Boluntario Digitalen Elkarte.
- Boluntarioen erregistroa (Boluntarioen txokoa) sortzea eta mantentzea.
- Boluntario txartela: txartela egiteko prozesua, kontrola, segurtasuna eta mantentzea.
- Jaurlaritzaren aseguruua prestakuntza eta jardueretarako.
- Boluntariotzarako prestakuntza espezifikoa: etengabekoa eta birziklapena eta oinarritzakoa.

Azkenik, Paul Ortega Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak adierazi du Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak ez duela boluntariotza sustatzeko ekintzarik eta hark zuzentzen duen Agentziak, Gazteriako Zuzendaritzarekin Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan egiten duen lanaz gain, ez duela beste ekintza espezifikorik.

Sailetako ordezkariak haien mintzaldietarako erabili dituzten testuak eransten dira aktan, azaldutako alderdien inguruko xehetasun gehiago izateko.

#### **4.- Kontseiluaren aurretiko lan-bilerako ondorioen aurkezpena**

Kontseiluaren aurretiko lan-bilera Lantalde Iraunkorrek egin du, eta ateratako ondorioak Gai-zerrendako 2. puntuan azaldu dira; beraz, atal honek ez du eduki gehiagorik.

#### **5.- Legealdiaren errebasoa, boluntariotzari dagokionez**

José Javier Miguel Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariak 2013-2016 aldiko Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren baitan bete diren ekintzak aurkeztu ditu. Horretarako, koadro bat banatu du partaideen artean, ekintza guztiekin eta haien betetze-mailekin. Aktan erantsita doa.

Estrategian aurreikusitako ekintzen betetze-maila altua balioetsi da. Urtea amaitzean, gizartean izan duen eraginaren ebaluazioa egingo da, eta Kontseiluaren hurrengo bileran aurkeztuko da.

#### **6.- Galderak eta eskaerak.**

José Javier Miguelek jakinarazi du Justizia Ministeriotik eskutitz bat jaso duela sexu-izaerako delituen egiaztagirien inguruan. Adierazi du Ministerioak laguntza eskatu duela sexu-izaerako delituen egiaztagiriak eskatzeko momentuei eta bideei buruzko informazioa emateko erakundeei eta herritarrei.

Ulertzen du lanez gainezka egon direla eskatu diren egiaztagiri kopuruagatik eta horregatik bidali dutela eskutitz hori, egiaztagiria zein kasutan eta nola eskatu behar den zehazten duten interpretazio-irizpideekin batera.

Ministerioak egindako interpretazioaren alderdi garrantzitsuenak irakurri ditu:

- Zer esan nahi du normalean adingabeekin harremanetan egoteak? Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren iritziz, sexu-delituen egiaztagiria exijitzeko helburuarekin, lan bat adingabeekin egin ohi dela erabakitzeko beharrezkoa da lanpostuak berak, izatez, normalean adingabeekin harremanetan egotera behartzea, nahiz eta adingabeak ez izan emandako zerbitzuaren hartzaile nagusiak; ez da beharrezkoa egiaztagiria aurkeztea publiko orokorrarekin, eta tarteka adingabeekin, harremanetan egotera behartzen duten lanbideen kasuan, baldin eta ez badaude izatez adingabeei soilik zuzenduta.
- Zenbat denborarako balio du egiaztagiriak? Ez da beharrezkoa egiaztagiria berriz aurkeztea edo tarteka berritzea, egiaztagiria zuzentzera behartzen duten egoera berriak gertatu direla jakin ezean.
- Sexu-delituengatik aurrekari penalak aurkeztea eskatzen duten lanpostuak betetzeko deialdien kasuan, eskariak pilatzea ekiditeko, interesdunak erantzukizunpeko adierazpen bat eranstea gomendatzen da, aurrekaririk ez duela adieraziz. Ondoren, probak gainditzen dituztenek soilik egiaztatu beharko dute erantzukizunpeko adierazpenean esandakoa, zuzenean nahiz enplegatzailearen bidez, aurrez eskarian bertan baimena eman badio aurrekariak kontsultatzen.

Zuzendariaren iritziz, interpretazio-irizpideak zehazten dituen Ministerioaren eskutitz horrek egiaztagiria eskatzeak sortu dituen zalantzak argitzen ditu, eta irizpideak erakunde guztiei helaraziko zaizkie, ez dezaten beharrezkoa ez dena exijitu.

Javier Carnicerok aipatu du Bizkaiko Foru Aldundia dirulaguntzen deialdi guztietan ari dela eskatzen egiaztagiria eta, ondorioz, dirulaguntzak jaso ahal izateko aldi-aldi aurkeztu behar dela. Esan bezala erakunde guztiei interpretazio-irizpideak jakinarazteko premiatu du.

José Alberto Vicentek nabarmendu du udako kanpamentuetan zailtasun handiak daudela baimenak lortzeko, URA oso zorrotza dela eta baldintza berak eskatzen dituela udako kanpamentu bat antolatzen edo enpresa bat egin ahal izateko. Ingurumeneko sailburuordeari galdetu dio ea badagoen konponbiderik.

Iosu Madariagak erantzun du ibaiak babesteko araudia oso zorrotza dela eta herritarrek eskatzen dutela hala izatea, urteetan zehar egon den babesgabetasunari aurre egiteko. Beraz, gaineratu du, ibai baten ondoan kolektibo bat badago, beharrezkoa da osasun-kontrola egitea. Adierazi du ez zaizkiola baldintza berak exijitzen enpresa bati edo egun batzuk ibaiaren ondoan pasako dituen kanpamentu bati, eta URAk konponbide bat eman diela jaso dituen eskariei.

José Antonio Fernándezek azpimarratu du gizartea dela kontrol eta segurtasun gehiago eskatzen duena eta horregatik exijitzen zaiela kanpamenduei eskatzen zaiena.

Rafael Hernándezek aipatu du sailek boluntariotza gisa hartu dutenaren barruan boluntarioei buruzko euskal legearen arabera boluntariotza diren eta ez diren gauzak daudela. Halaber, nabarmendu du dirulaguntzak berandu deitzen eta ebazten direla orokorrean, ekitaldi ekonomikoa dagoeneko aurreratua dagoenean, eta, beraz, hartzaileek ez dakitela zenbat diru izango duten urtean zehar.

Ricardo Sánchezek galdetu du zein egoeratan dagoen EITBrekin lankidetzan jarduteko proposamena.

José Javier Miguelek erantzun du EITBk proposamen zehatzak behar dituela. Boluntariotza sustatzen laguntzeko prest dago, baina zer egin nahi dugun proposatzea nahi du. Ildo horretatik, proposamenak egiteko eskatzen du.

Ricardo Sánchezek esan du azken bi kontseiluetako deialdiak 15 egun lehenago egin direla eta, haren iritziz, epe hori motzegia dela, denbora tarte txiki horrekin ohikoa delako agenda okupatuta edukitzea egun horretarako. Deialdia lehenago egiteko eskatu du.

Deialdiak hiru aste lehenago egingo direla adostu da.

Ángel Toña sailburuak partaideek gaurko bileran nahiz aurrekoetan egin duten lana eta laguntzeko izan duten gogoia eskertu du, eta Kontseiluak halako ibilbide garrantzitsua egiten jarraitzea espero du.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da 13:30ean.

O.E.

Ramón Andrinua



Ángel Toña